

Kultur agenda

Maiatza 14 ostirala
Maiatza 29 igandea



Doctor Deseo Zibbibo aretoan

Doctor Deseo musika taldeak "Rómpeme con mil caricias cielo, rómpeme" disko berria aurkeztuko du ostiralean, maiatzak 14, Ilunbe aisialdi guneko Zibbibo aretoan, 22:00etan. Francis Díez abeslariaren taldearen azken diskoak, ohi den legez, pop eta rock estiloak uztartzen ditu fin-tasunez. Joy Division talde mitikoaren abesti baten euskarazko bertsioa ere egin dute.

"Lagunekin Kantari" Larrotxenen



Abian da "Lagunekin kantari" kultur ekimena. Thierry Biscary eta Maialen Errotabehere kantariak eta Philippe Albor gitarra jotzaileak kontzertua eskainiko dute ostiral honetan, maiatzak 14, Intxaurrendoko Larrotxene kultur etxean (Intxaurrendoko 57), 20:00etan. Ostegunean, hilak 20, berriz, Itziar Zamora eta Jon Txurio ariko zaizkigu kantari, 20:00etan. Eta, ostiralean, hilak 21, Larrotxene bertatik 20:00etan irtengo den kantu-jira batekin bukatuko da aurtengo "Lagunekin kantari" ekimena. Azken egun horretan, kantu-afaria ere izango da, 22:00etan.

Film labur apartak ANTZOKI Zaharreen

Gau:On egitasmoak Clermont Ferrand zinemaldiko film labur onenak ikusteko aukera eskainiko digu ostiralean, maiatzak 14, Antzoki Zaharreen, 00:00etan. Hurrenez hurren, "Jo Jo in the Stars", "7:35 de la mañana", "Akharin roustaye sarshomari nashodeh", "Fast Film" eta "Natan" film laburrak emango dituzte.



The Incredible String Band Kursaalean

Ia 30 urteko isiltasuna eta gero, duela bi urte eszenatokietara itzuli zen berriz ere The Incredible String Band talde mitikoa. Folk, etengabeko rocka, world musika eta psikodelia nahasten ditu disko berrian. The Incredible String Band taldeak Kursaalako Ganbera aretoan joko du asteartean, maiatzak 18, 20:00etan.

